

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LEHENDAKARITZA

# 4187

*EBAZPENA, 2014ko urriaren 8koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, euskal lankideentzako 2014. urterako laguntzak emateko deialdia egiteko dena.*

Ebazpen honen bidez, maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuan jasotako aurreikuspenak betetzen dira 2014ko laguntzetarako, betiere urtarrilaren 10eko 2/2006 Dekretuaren (2006-01-17ko EHHA, 11. zk) eta abenduaren 26ko 264/2006 Dekretuaren (2007-01-09ko EHAA, 6. zk) bidez egindako aldaketen ondorengo idazketan. Maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren bidez, Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautu zen. Oro har, ebazpen honetan ez dira errepikatuko dekretu horren edukiak, zeina diru-laguntza hauen deialdira aurkeztu nahi duten erakundeek nahitaez kontsultatu behar baitute.

124/2005 Dekretuak GGKEei edo dekretu honetako 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, 3. artikuluko baldintzak betetzen dituzten beste erakunde batzuei emandako diru-laguntzen bitartez, pobreziari aurka egiteko lan egiten duten tokiko entitateak edota erakundeak indartzen parte hartzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko lankideei emateko laguntzak arautzen ditu.

Dekretu horren 9. artikulua xedatutakoaren arabera, laguntzak emateko deialdia urtero egingo da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu bidez. Egun, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia da eskumen hori duen agintaritzaren, honako bi dekretu hauek batera aplikatuta: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, eta Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretua. Deialdi-ebazpenean, betiere, zuzkiduraren guztizko zenbatekoa eta laguntzen gehienezko kopurua adierazi beharko dira, bai eta eskabideak aurkezteko lekua, epea eta eskabide-orriaren eredia ere.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako organoei dagokie nola kudeatu aipatutako laguntzak eta arlo honetan eman beharko diren ebazpenak edo sinatuko diren hitzarmenak. Horretarako, bi lege-xedapen hauek bete beharko dituzte: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikulua, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikulua.

Laguntza horiek emateko izapidetu behar den prozeduraren kudeaketa-erantzukizunari, eta, zehazki, esleipen-proposamena onartu behar duen organoa izendatzeari dagokionez, gaitasun hori ebazpen honetako 6. artikuluan aipatzen den organoari ematen zaio. Dekretu arautzailearen 10.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Focad Garapenerako Lankidetzarako eta Laguntzarako Fondoaren batzorde kudeatzaileari dagokio laguntzak emateko ebazpen-proposamena egitea. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzeak eta gai horren inguruko administrazio-egituren eskumen-berrantolaketak ekarri zuten Focad funtsaren batzorde kudeatzailea arautzen duen martxoaren 30eko 64/2004 Dekretua indargabetzea, betiere Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren bigarren xedapen indargabetzaileari jarraituz; batzorde kudeatzaile horren eskumen orokorren artean Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kargura ema-

ten ziren laguntzen urteroko esleipena proposatzea zegoen; bestalde, gaur egun ez dago jada egitura ekonomiko hori.

Honakoak kontuan izanik: dekretu arautzailea ez dela aldatu aurreko idatzi-zatian jasotako gaiari dagokionean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamendua ezartzen dituen Erregelamenduak ez diola erantzunik eman gabezia horri, eta, deialdi honek azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean jasotzen diren aurreikuspenak bete behar dituela, laguntzetarako prozeduren kudeaketarako organo eskudunak zehaztu eta izendatzeari dagokionean bai eta ebazpen-proposamena egin ere, bidezkoa da hori zehaztea eta batzordea osatzen duten pertsonak izendatzea.

Azkenik, adierazi behar da deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Artezaritza Kontseiluaren oniritzia jaso zuela 2014ko uztailaren 17an egindako bilkuran. Ondorioz, hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Euskal lankideentzako 2014. urterako laguntzak emateko deialdia egitea da ebazpen honen xedea.

##### 2. artikulua.– Diru-hornidura.

1.– Euskal lankideentzako laguntzetarako diru-zuzkiduraren zenbateko osoa 250.000 eurokoa izango da.

2.– Zenbateko hori handitu ahal izango da, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren beste laguntza-programa batzuk gauzatzearen ondorioz amaitu gabeko beste diru-iturririk dagoen ikusita, eta, betiere, laguntza horiek ebatzi aurretik. Halakorik izanez gero, EHAAan emango da horren berri, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren ebazpen bidez.

##### 3. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbatekoa urteko 18.000 euro bitartekoa izango da, hautagai bakoitzeko, gutxienez urtebetez, eta gehienez bi urtez.

##### 4. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Laguntza-eskabidea aurrez aurre aurkez daiteke Herritarrei Laguntzeko Bulegoan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bulegoetan, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean, eskabide normalizatu baten bidez, haren atal guztiak behar bezala beteta, ebazpen honen I. eta II. eranskinetan jasotako ereduaren arabera.

3.– Eskabideak aurkez daitezke, baita ere, honako webgune hauen bitartez: [www.elankidetz.euskadi.net](http://www.elankidetz.euskadi.net) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgunea, eta [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) Eusko Jaurlaritzaren webgunea.

4.– Eskabideak, I. eta II. eranskinetan jasotako ereduaren arabera beteta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara helarazi beharko dira:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

Nafarroa kalea 2

01007 Vitoria-Gasteiz

5. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari dagokio diru-laguntza lerro honen kudeaketa-lanak egitea. Horretarako, Koordinazio Teknikoko Zerbitzuak laguntza-eskabideen analisi teknikoa eta balorazioa egingo ditu, eta, ondoren, hurrengo artikuluan aipatzen den Balorazio Batzordeari bidaliko bere proposamena eta, azkenik, hark laguntzak emateko eskumena duen organoari bidaliko dio proposamen hori.

6. artikulua.– Balorazio Batzordea.

Honako pertsona hauek osatzen dute Balorazio Batzordea, aurreko artikuluan aipatzen dena:

– Lehendakaria: Ainara Arrieta Archilla andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Teknikoko arduraduna.

– Kidea: Noemí de la Fuente Pereda andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Estrategikoko arduraduna.

– Kidea: Nicolás Basarrate Hormaechea jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna.

– Idazkaria: Ana Isabel Rojo González andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako aholkulari juridikoa.

7. artikulua.– Esleitzeko eskumena duen organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria da iragarritako laguntzak esleitzeko eskumena duen organoa.

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honetan berriaz aurreikusita ez dagoen ororako, honako hiru hauetan jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua; eta Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen dituen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretua.

## AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

2014ko urriaren 9a, osteguna

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 8a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,  
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.

2014ko urriaren 9a, osteguna



Inprimatu

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## Eskabidea

## EUSKAL LANKIDEENTZAKO LAGUNTZEN ESKAERA

## Informazio orokorra

Erakunde eskatzailea: \_\_\_\_\_

Tokiko erakundea: \_\_\_\_\_

Lankidearen izen abizenak: \_\_\_\_\_

NAN:           -

Lankidetzatza gaiztatuko den herrialdea: \_\_\_\_\_

Egitekoaren izenburua: \_\_\_\_\_

## Euskal erakunde eskatzailearen datuak

Erakundearen izena  
\_\_\_\_\_

Identifikazio-dokumentua: \_\_\_\_\_ Identifikazio-zenbakia: \_\_\_\_\_

Erakundearen forma juridikoa: \_\_\_\_\_ Eratze data: \_\_\_\_\_

Zein erregistrotan dagoen inskribatua: \_\_\_\_\_

Erregistro data: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

P.K.:           Udalerria: \_\_\_\_\_ Lurraldea: \_\_\_\_\_

Telefono finkoa

Sakelako telefonoa

Helbide elektronikoa (e-mail): \_\_\_\_\_

Web-orriaren helbidea: \_\_\_\_\_

## Euskal erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren identifikazio-datuak

Izen abizenak  
\_\_\_\_\_

NAN:           -

Postua edo kargua: \_\_\_\_\_

Data eta botereak egiaztatzeko agiria: \_\_\_\_\_

2014ko urriaren 9a, osteguna

**Tokiko erakundearen identifikazio-datuak**

Erakundearen izena	_____
Identifikazio-dokumentua: _____	Identifikazio-zenbakia: _____
Erakundearen forma juridikoa: _____	Eratze data: _____
Zein erregistrotan dagoen inskribatua: _____	
Erregistro data: _____	
Helbidea: _____	
P.K.: <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>	Udalerrria: _____ Lurraldea: _____
Herrialdea: _____	
Helbide elektronikoa (e-mail): _____	
Web-orriaren helbidea: _____	

**Tokiko erakundearen legezko ordezkariaren identifikazio-datuak**

Izen abizenak	_____
Identifikazio-dokumentua: _____	Identifikazio-zenbakia: _____
Postua edo kargua: _____	
Data eta botereak egiaztatzeko agiria: _____	

**Lankideraren jardueren iraupena**

Hasteko aurreikusitako data: _____
Amaitzeko aurreikusitako data: _____
Osorik burutzeko epea (hilabeteak): _____

**Finantziazioa**

Kostua, guztira: _____
GLEA-ri eskatutako diru ekarpena: _____

Emandako/eskuragarri dauden edo/eta eskatutako beste ekarpen batzuk (zehaztu):

	Emandakoa/Eskuragarri	Eskatutakoa
Euskal erakunde eskatzailea		

2014ko urriaren 9a, osteguna

Tokiko erakundea		
Bestelako ekarpenak (sartu lerro bat kofinantziazio iturri bakoitzeko):		

**+ Lerro berria gehitu**

### Erantzukizunpeko adierazpenak

- Erakunde eskatzaileak ez du izan behar diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko zehapen administratibo edo penalik, ezta horretarako gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere, eta berariaz erreferentzia egingo zaie sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik jarritakoei (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren Azken Xedapenean xedatutakoarekin bat etorriz).
- Eskabide honetako datuak eta erantsitako agiriak egiazkoak dira.
- Erakunde eskatzaileak laguntza hauen onuradun izateko indarreko araudian ezarritako eskakizunak betetzen ditu, hori egiaztatzen duten agiriak baditu eta diru-laguntzaz gozatzeari datxekion aldian horiek betetzeko konpromisoa hartzen du.

### Onartutako balidazioak

- Nire adostasuna adierazten dut Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak automatikoki egiazta dezan, behar adina aldiz, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direlako egiaztatpena.

### Konpromisoak

- Diru-laguntza esleitzeko eskatutako eta aintzat hartutako eskakizunei eragiten dien edozein aldaketaren berri Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari jakinarazteko konpromisoa hartzen du erakunde eskatzaileak.

### Aurkeztu behar diren atalen zerrenda eta dokumentazioa. (jarri X bat dagokion lekuan)

#### EUSKAL ERAKUNDE ESKATZAILEA:

Informazio hori behin baino ez da erantsi behar, deialdian aurkeztutako proiektu kopurua kontuan hartu gabe; eskaera bat baino gehiago aurkeztuz gero, adierazi zein proiektutan erantsi den dokumentazioa:

- 1.- Erakunde eskatzailea ordezkatzeko duen pertsonaren ahalordearen orijinala edo kopia kautotua/konpultsatua (aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik badago).
- 2.- Dagokion erregistroan erregistratua dagoelako egiaztagiraren orijinala edo kopia kautotua/konpultsatua (aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik badago).
- 3.- Estatutuen orijinala edo kopia kautotua/konpultsatua (aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik badago).
- 4.- Identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) txartelaren orijinala edo kopia kautotua/ konpultsatua (aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik badago).
- 5.- Erakundearen organigramaren kopia solina. EAEko langile ordainduak eta ordaindu gabeak. Boluntarioak eta laguntzaileak, bazkide-kopurua, erakundeko kideak. EAEn duen egoitza eta ordezkartzak. Garapen lankidetzarako beste zein erakundetako kide den erakunde eskatzailea.

2014ko urriaren 9a, osteguna

- 6.- Erakunde eskatzaile eta tokiko bazkearen arteko erkarlana egiaztatzen duen agiria. Bazkide horren bitartez burutu beharko da hautagaia txertatuko deneko proiektua.
- 7.- Eskabideak aurkezteko epea bukatzean, azken txostenak bidaltzen eta lehenago diru-laguntzak jasotako laguntzak osorik justifikatzen hiru hilabete baino gehiagoko atzerapena ez duela dioen erakunde eskatzailearen aitortpena.
- 8.- Tokiko erakundearen ziurtagiria non lankidea lankidetzat nahi duela egiaztatzeko duena.
- 9.- Erakunde eskatzailearen ziurtagiria no lankideak bere jardura betetzen duen bitartean, proiektua egiten ari den lekuan, gutxienez urtebeteko eta gehienez ere bi urteko iraunaldia bermatzen duen.
- 10.- Lan-aurrekontratua edo lan-kontratuaren kopia soila, ekintzak xede-herrialdean izango dituen ezaugarri bereziak zehazten dituen prestazioa egiteko akordio osagarriarekin batera.
- 11.- Lankidearen aseguru-konpromisoaren adierazpena, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak kontratatutako aseguru orokor kolektiboari atxikiz edo poliza bat sinatuz. Poliza horrek, nolahi ere, Lankidearen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuaren 10.1.e artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

**LANKIDEEN DOKUMENTUAK:**

- 1.- Erroldaren ziurtagiria, lankide boluntarioa EAeko edozein udalerritan 2014ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik bizi dela egiaztatzeko.
- 2.- Lankidearen gidabaimen-neurriko argazkia.
- 3.- Lankidearen NANaren fotokopia.
- 4.- Curriculum eta bertan jarritakoak egiaztatzen duen dokumentazioa.
- 5.- Lankidearen zinpeko aitortpena, deialdiaren oinarriak betetzeko konpromisoa bere gain hartuz.

**KOKAPENA:**

- 1.- Proiektuaren kokapena zehazten duen maparen kopia soila.

**AURREKONTUA:**

- 1.- Partiden eta baterako finantzatzaileen arabera banakatutako aurrekontuaren kopia soila, finkatutako formatuarekin bat etorritik.
- 2.- Proforma fakturen kopia soila.
- 3.- Iturri propioak edo beste iturri batzuetatik lortutakoak egiaztatzen dituzten agirien kopia soilak.

(e)n

(e)an

(Tokia)

(Data)

(Ordez kariaren sinadura)



## II. ERANSKINA

## EUSKAL LANKIDEENTZAKO LAGUNTZEN ESKAERA

I.– Hautagaiari buruzko informazioa.

1.– Borondatezko lankidearen jarduera txertatzen den prozesuaren deskribapen xehatua (25-50 lerrotan deskribatu tokiko erakundea edo entitatea, eta berau indartzeko dauden estrategiak zehaztu, bai eta borondatezko lankidearen jarduera non kokatu behar den ere).

--

2.– Lankideak proiektuan dituen egitekoen deskribapen xehatua (25-50 lerrotan adierazi lankideak dituen egitekoei buruzko daturik garrantzitsuenak).

--

3.– Jardueren kronograma (2. atalean aipatutako egitekoak jardueren zutabeetan daude zerrendatuta. Ondoko zutabeetan «X» batez adieraziko da jarduera bukatzeko aurreikusten den hiruhilekoa).

Jarduerak	Lehenengo urtea				Bigarren urtea			
	1.º	2.º	3.º	4.º	1.º	2.º	3.º	4.º

(Gehitu behar beste jarduera)

4.– Kokapen xehatua.

--

5.– Aurreikusitako emaitzak (10-20 lerrotan deskribatu lankidearen bitartez eta lagundu egin nahi den tokiko antolakunde/ erakundearen bitartez lortu nahi diren emaitzak).

5.1.– Aurreikusitako emaitzak.

5.3.– Emaitzak egiaztatzeko adierazleak.

5.3.– Adierazleak egiaztatzeko bideak.

6.– Tokiko antolakundeak behar duen lankidearen ezaugarriak.

2014ko urriaren 9a, osteguna

## 7.- Proiektuaren aurrekontua eta finantzazioa.

Partidak	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	Euskal erakunde eskatzailea	Tokiko erakundea	Beste ekarpen batzuk	Guztira
Lankidearen ordainsaria					
Gizarte Segurantzako gastuak					
Aseguru-gastuak					
Garraioa					
Guztira, oro har (eurotan)					
Guztizko kostuen gaineko portzentajea					

II.– Lankidearen curriculuma.

I.– Informazio orokorra.

Izen-abizenak: .....

NAN: ..... Jaioteguna: .....

Helbidea: ..... Herria: .....

Probintzia: ..... PK: .....

Telefona: ..... Faxe: .....

Posta elektronikoa: .....

2.– Argibide akademikoak:

2.1.– Titulazio akademikoak:

Zertan lizentziatua? (zehaztu): .....

Zentroa: .....

Ikasketak amaitu zitueneko data: .....

Ikasketen ziurtagiriko kalifikazioa: .....

2.2.– Graduatu ondoren egindako ikastaroak:

Titulua: .....

Zentroa: .....

Iraupena: ..... Lortutako kalifikazioa: .....

Titulua: .....

Zentroa: .....

Iraupena: ..... Lortutako kalifikazioa: .....

2.3.– Bestelako ikasketa edo ikastaroak:

Titulua: .....

Zentroa: .....

Iraupena: ..... Lortutako kalifikazioa: .....

Titulua: .....

Zentroa: .....

Iraupena: ..... Lortutako kalifikazioa: .....

## 3.– Hizkuntzak:

Lankideak ekintza burutuko duen eskualdean erabiltzen den/diren hizkuntza/k

Lankideak egiaztatutako hizkuntzak:

Hizkuntza	Maila	Egiaztatzen duen dokumentua
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....

## 4.– Ibilbide profesionala:

## 4.1.– Jasotako bekak eta laguntzak.

Erakundea	Bekaren izena	Hasiera eguna	Iraupena
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....

## 4.2.– Lan-esperientzia:

## 5.– Egindako lanak eta argitalpenak:

Titulua: .....

Noiz argitaratua: ..... Data: .....

Titulua: .....

Noiz argitaratua: ..... Data: .....

Titulua: .....

Noiz argitaratua: ..... Data: .....

## 6.– Beste datu interesgarri batzuk: